
EUSKALTZAINDIAREN ARAUEN LABURPENA

Aldizkari honek, betidanik aparteko lekua egin izan dio euskararen eremuan gertatu izaten diren berriak jaso eta irakurleei eskaintzeari. Honela aritu izan gara hainbat idazle (besterik beste, Lino Akesolo, Santi Onaindia, Luis Baraiazarra, Patxi Uribaren) azken uste hauetan. Euskara komunikaziorako bide bakar gisa erabiltzeaz gainera, hausnarketarako jangai ere izan dugu.

Gaurko honetan, lan honen izenburuan ageri den bezala, Euskaltzaindiak bideratzen ari den euskara batu edo estandarerako eman izan dituen araurik jakingarrienak bildu nahi izan ditut, zuok, irakurle aseeginok egokiago ezagutu eta premia duzuenean kontsultazeko esku artean izan ditzazuen.

Aurrera egin aurretik, alabaina, esan beharra dut ez dudala inolaz ere Euskaltzaindia argitaratzen ari den *Euskaltzaindiaren arauak* lanarekin lehia hasteko asmorik. Aldizkari honetan, orriak mugatuak izanik, aipaturiko lan horretatik zerik interesgarrienak baino ez ditut jasoko. Alor hau sakonago aztertu nahi duzuenok (hartutako erabakien zioak, horretarako erabilitako aztergai eta adibideak zein bestelako zenbait hausnarketa sakon), bada, aukera paregabea izango duzue Euskaltzaindira deitu (Tfnoak: 4158155/4152745) eta guzti horien berri eskuratzeko.

Hemen, bada, esan dudan bezala Euskaltzaindia argitara ematen ari den arau sortako zerik jakingarrienak bildu eta eskainiko dizkizuet, bestelako erabakiak (hala nola, euskara ba-

turako aukeratutako hitzen zerrenda, herrien izenak eta abar) ezagutzeko iturrietara jo beharra duzuela gogoratu.

Beraz, besterik gabe, oso gogoko izango dituela itxaronez, atalik atal eskaintzen dizkizuet, zenbaitek interesgarriztat jotzen arauen bilduma hau. Izan dezazuela euskara sakonago ezagutzeko eta egokiago erabiltzeko bide.

BAT-BATEAN / BEHINIK BEHIN / BATIK BAT

Euskaltzaindiak hau erabakitzen du: idatz dadila euskara batuan *bat-batean* (eta halaber *bet-betan*), eta ildo beretik *bat-bateko* eta *bat-batekotasun*; orobat, idatz dadila euskara batuan *behinik behin* eta *batik bat*. [Ez erabili: *bat batean*, *behinik-behin*, *batik-bat*, *bapatean*, *behinibehin*, *batipau*]

BAITU / BAIKARA / BAINAIZ

Bait partikula, kasu guztietan, aditzari atxikia idatz dadila: *bainaitz*, *baikara*, *baitoaz*, e.a., eta ez **bai(t) naiz*, **bai(t) gara*, **bai(t) doaz*, e.a. [Adibideak: *baitu*, *bailuke*, *baitabiliza*, *baikintuen*, *bainenbilen*, *baibintzen*, *baitlitzateke*, *baikara*, *baibaiz*, *baitzuen*, *baitaior*, *baitentozke*, *baitetorke*...]

AURREALDE / ATZEALDE

Erabil daitezela, orainsu arte egin den bezala, esapide osoak: *aurreko alde*, *atzeko alde*, *barruko alde*, *gaineko alde*, *azpiko alde*, *goiko alde*, *beheko alde*, *kanpoko alde* e.a., edota forma atzizkidun jatorrak: *aurrealde*, *atzealde*, *barrualde*, *gainalde*, *azpialde*, *gotalde*, *behealde*, *kanpoalde* e.a.

HAU GUZ(T)IA

Euskaltzaindik gogorarazi nahi du *hau guz(t)ia*, *bide hartan guz(t)ian*, *horiekin guz(t)iekin* eta kidekoak hobestekoak direla batasunaren izenean. Eta orobat *gauza hauek guz(t)iak* eta *honen kidekoak*. Beraz, *hau guz(t)ia* eta *guz(t)i hau* esapideen artean, lehen da hobesten dena. Eta berdin gertatzen da *bide hartan guz(t)ian* / *bide guz(t)i hartan*, *horiekin guz(t)iekin* / *guz(t)i horiekin* eta hauen antzeko bikoteetan. Denetan lehen aldaera da hobestekoa.

Hala ere, *bau guz(t)ia* eta *bori guz(t)ia* formekin batera *bau guz(t)iau* eta *bori guz(t)iori* ere oso bidezkoak dira (ez, ordea, **gizonau* bezalakoak, jakina). Halaber, *bauek guz(t)io*k, *boriek guz(t)io*k, (*gauza*) *bauek guz(t)iak*, *boriek guz(t)iak* eta *baiek guz(t)iak* formak.

ENE/NIRE / NIRI

Hau da, Fuskaltzaindiaren erabakia: *ni* izenordainaren *noren* kasuan *nire* erabil dadila (eta, jakina) *niretzat*, *nirekin*), eta orobat *ene*, maila jasoan bederen; *nor* kasuan *niri* erabil dadila.

USAIN / ARRAIN / ZAIN

Hau da Fuskaltzaindiaren erabakia: *-ain* eta *-ai* aklaerak dituzten hitzetan *-ain* formak erabil daitezela; hau da, *arrain*, *usain*, *zain* (eta honen eratorriak diren *artzain*, *atezain*, *diruzain*, *itzain*, *ertzain*, *goztain* e.a.), *dobain*, eta orobat, *orain* idatz daitezela euskara batuan; baina beste sail batekoa denez gero *mabai*, eta ez *mabain*, idatz dadila.

ZENBAKIEN IDAZKERA

0	zero, huts	60	hirurogei (hiruretan hoge)
1	bat	70	hirurogeita hamar
2	bi	80	laurogei (lauretan hoge)
3	hiru	90	laurogeita hamar
4	lau	100	ehun
5	bost	101	ehun eta bat
6	sei	125	ehun eta hogeita bost
7	zazpi	200	berrehun
8	zortzi	300	hirurehun
9	bederatzi	400	laurehun
10	hamar	500	bostehun (bortzehun)
11	hamaika	600	sciehun
12	hamabi	700	zazpiehun
13	hamahiru	800	zortziehun
14	hamalau	900	bederatzichun
15	hamabost	1000	mila
16	hamasei	2000	bi mila

17	hamazazpi	1300	mila eta hirurehun
18	hemezortzi (hamazortzi)	1302	mila hirurehun eta bi
19	hemeretzi	1.000.000	milioi bat
20	hogei	1.000.004	milioi bat eta lau
21	hogeita bat...	10.000.000	hamar milioi
30	hogeita hamar	1.000.000.000	mila milioi (miliar bat)
40	berrogei	1.000.000.000.000	biloi
50	berrogeita hamar	10.000.000.000.000	hamar bilioi

* 1997: mila bederatziehun eta laurogeita hamazapi.

* **Ahoz:** chun eta bat / ehun ta bat / ehun da bat.

Oharra: Mila zenbakitik gora eta kenduko da ondoren datozen ehu-nekoetan ere agertzen bada: *mila eta berrehun*, baina *mila berrehun eta bi*. Beraz, 7.985.355: *zazpi milioi bederatziehun eta laurogeita bost mila hirurehun eta berrogeita hamabost*.

ZENBAKIEN DEKLINABIDEA

I) Zenbakien deklinabideak ez du aparteko arazorik plazaratzen, **biru** eta **lau** zenbakien kasuan ez bada: adibidez: *hamazapi* (mugagabea) *etorri dira / hamazazpiak* (mugatua) *etorri dira / hamazazpiek* (ergatikoa) *egin dute*.

II) **Hiru** eta **lau** zenbakien deklinabideari buruzko erabakiak:

1) **Hiru eta lau** izenak direnean, bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagma bezala deklinatuko dira: *biru/lau, hirua/laua, biruak/lauak* (abs.); *biruk/lauk, hiruk/lauak, hiruek/lauak* (erg.), e.a.

2) Izenordain baten funtzioa dutenean (alegia, sintagma osoa beraiek bakarrik osatzen dutenean) honelaxe deklinatuko dira:

HIRU		LAU	
mugagabea	plurala	mugagabea	plurala
hiru	hirurak	lau	laurak
hiruk	hirurek	lauk	laurek
hiruri	hirurei	lauri	laurei
hirurik	laurik		
hirutan	hiruretan	lautan	lauretan
hirutako	hiruretako	lautako	lauretako

hirutatik	hiruretarik	lautatik	lauretarik
hirutara	hiruretara	lautara	lauretara
hiruren	hiruren	lauren	lauren
hirurekin	hirurekin	laurekin	laurekin
hirurentzat	hirurentzat	laurentzat	laurentzat
hirurez	hirurez	laurez	laurez

3) Hau **hiru** eta **lau** zenbakiei bakarrik dagokie eta ez **hamahiru/hamalau**, **hogeita hiru/hogeita lau**, **berrogeita hiru/berrogeita lau** eta gainerakoei, hauen pluraleko deklinabidea **hamahiruak/hamalauak**, **hogeita hiruak/hogeita lauak**, **berrogeita hiruak/berrogeita lauak**, e.a. baitira. [Adibidea: *Atzo hirurak/laurak ikusi nituen / atzo hamahiruak/hamalauak ikusi nituen*]

4) Analogiaz sortu diren **zazpirak**, **zortzirik** eta horrelakoak bigarren mailan utzi beharko lirateke euskara idatzian, hauek bokalez bukatutako izenak bezala deklinatzen baitira: **seiak**, **seietan**, **seitatik**, e.a.

-ZIO (AMORRAZIO, ADMINISTRAZIO, DEBOZIO)

Euskaltzaindiak -zio, -zino, -ziño, -ziño edo *-zione* aldaeren artean *-zio* aldaera (hots, **amorratio**, **begitazio**, **debozio**, **instalazio**, **integrazio**, **zibillazio**, **administrazio**, **segizio**, **barkazio**, bezalako formak) hobesten du euskara baturako.

NORNAHI / NONAHI / NON-NAHI

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: galdetzailere batez eta *nabi* partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatz daitezela; **zernabi**, **nornabi**, **nornabirik**, **nolanabi**, **noranabi** e.a. Aldiz, lehen *osagaia n-z, t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batean (**nonabi**, **zenbanabi**, **nondinabi**, **nonabitik**), edo marratxo baten bidez bereziak (**non-nabi**, **zenbat-nabi**, **nondik-nabi**, **non-nabitik**) idatz daitezke.

NOR/NORTZUK / ZER/ZERTZUK / ZEIN/ZEINTZUK

Euskaltzaindiak, kontuan harturik forma atzizkidunak (**nortzuk**, **zertzuk**, **zeintzuk**) literatura tradizio jakin bati lotuak daudela, hau erabakitzen du: **nor**, **zer** eta **zein** formei lehentasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorki duten

izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan -forma markatu gisa esan nahi da- aurkezten, bai eta onesten ere.

Edonola ere, forma hauen deklinabideko paradigmak hauek dira: **nortzuk, zertzuk, zeintzuk** (abs.), **nortzuek, zeintzuek, zertzuek** (erg.), **nortzuei, zertzuei, zeintzuei** (dat.), e.a.

BAT ETA BATZUEK-EN DEKLINABIDEA

1) **BAT**: literatura tradizioaren bilakaera gogoan harturik, leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek erabakitzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako (kontuan izan **bata, batak** eta halakoak beste hitzaren agerraldi mugatu baten eraginpean bakarrik erabiltzeko direla):

2) **Batzuak** gisako erak baztergarritzat hartu behar dira euskara baturan:

<u>Mugagabea</u>	<u>Mugatua</u>	<u>Plurala</u>
bat	bata	batzuk
batek	batari	batzuek
bati	batari	batzuei
baten	bataren	batzuen
	(batzuegan, batzuegandik, batzuen baitan, e.a.)	
batentzat	batarentzat	batzuentzat
batekin	batarekin	batzuekin
batez	bataz	batzuez
batean, baten	batean	batzuetan
bareko	bateko	batzuetako
batera	batera	batzuetara
batetik	batetik	batzuetatik (-tarik)

LERROZ ALDATZEAN MARRATXOAK NOLA JARRI

Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du.

(Adibidez: *za-ku-rra/mai-ta-su-na/hi-tza*; *ez zakurr-a/maitasun-a/bitx-a*)

PARTITIBOAREN ERABILERA

Erabil bedi partitiboa euskaraz, beti erabili izan den gisa, hau da, artikulurik gabe (*lagunik, lanik, abuntzik*, e.a.) eta pluralik gabeko ko-

munztadura eginez aditzarekin (*dugu, dute, genuen*, e.a.). [Adibideak: Ez dut liburu garestirik erosi; ez dut lanik egin].

ZU IZAN EZIK

Erabil bedi formula osoa, *izan ezik*, eta *ez ezik* bakarrik, eta aurreko sintagmak har beza dagokion kasu marka. Nolanahi ere, ergatiboaren kasuan zilegi da absolutibo kasua erabiltzea. [Adibidea: Horixe egingo luke, zuk izan ezik, beste dozeinek].

Oharra: *izan ezik* horrek ez ditu agortzen, zernahi gisaz, *ezik*-en beste erabilera batzuk.

EUSKAL ALFABETOAREN LETREN IZENAK

<u>Letra</u>	<u>izena</u>	<u>Letra</u>	<u>Izena</u>
a	a	ñ	eñe
b	be	o	o
c,ç	ze, ze hautsia	p	pe
d	de	q	ku
e	e	r	erre
e	efe	s	ese
g	ge	t	te
h	hatxe	u	u
i	i	v	uve
j	jota	w	uve bikoitza
k	ka	x	ixa
l	ele	y	i grekoa
m	eme	z	zeta
n	ene		

ORDINALEN ETA BANATZAILEEN IDAZKERA

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

1) Ordinaletan "garren" ahoskatzen den bakoitzean puntua jar bedi haren ordainean: *Atano X. arekin, XX. mendean, 12. mendean*.

2) Oso-osorik letraz idazteko orduan arazoak sor ditzaketen ordinalek honela egiten dute: *bogeila batgarren, hirurogeita batgarren*. Hala

ere, *bosgarren*, *hogeita bosgarren*, *hirurogeita hamabosgarren*, e.a. idatziko da.

3) Distributiboak, *-na* baliatuz osatzen direnean, honela idazten dira: *bana*, *hosna*, *ebuna*, *mila bana*, *zenbana*, e.a. Hauen **aldaerak ere** (*borzua*) berdin idatziko dira.

BENETAKO, OHIKO

Hau da Euskaltzaindiak erabakitzen duena: idatz dadila euskara batuan **benetako** (eta ez **benetazko**). **Obiko/obizko** bikoteari dagokionez, Euskaltzaindiak, inolako aukerarik egin gabe, gogorarazi nahi du **obiko** dela tradizioan nagusitzen dena eta Iparraldean gaur bizi den forma bakarra.

BETIKO ETA HONEN KIDEAK

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: Idazleen erabilera eta deklinabideko egituratze formala kontuan hartuta, garbi dago **betiko** dela forma egokia Euskal Herri osoari begira eta **aditzondoa + ko** forma dela hobetsi beharrekoa. Hortaz, **gaurko**, **bibarko**... bezalaxe, **atzoko**, **etziko**, **sekulako**, **luzaroko** eta **betiko** bezalako formak dira aditzondoaren tzako hobesten direnak.

ARABERA

Euskara baturako erabakitzen den forma bakarra **arabera** da esapide gisa erabiltzeko.

IRITZI

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: **iritzi** erabil bedi aditz nahiz izen gisa.

ARAZI

I.- Hau da arauaren forma berria:

1) Aditz "arazleak" eratzeko, **arazi** aldaera gomendatzen du Euskaltzaindiak, salbuespen bakarra **adierazi** delarik.

2) Aurreko aditzari lotua idatziko da beti arazi: **barrarazi**, **erorarazi**, **iraunarazi**, **bilarazi**, **betearazi**, **galarazi**, **geldiarazi**, **ezagutarazi**, **nabarmenarazi**, **ibardetarazi**, **inarrozarazi**.

3) Zenbait aditzen adalera t-dunak, hots, **sortarazi, agertarazi**, eta kidekoak, **sorrarazi, agerrarazi** eta kidekoak bezain zilegizkotzat hartzen dira.

4) **Arazi**-ren aurreko aditza **a** bokalez amaitzen baldin bada, **a** biekkin bat egingo da: **aldarazi, benedikarazi, jokarazi, koordinarazi, obligarazi, sozializarazi**.

II.- Hau da aditz honen erregimena:

1) Arazi-ren subjektua beti ergatiboan doa: **Koldok etorrarazi du Mikel**.

2) Oin aditzaren objektua beti absolutiboan: **Sagarrak salarazi ditugu**.

3). Oin aditza iragankorra denean, subjektua datiboan darama: **Niri liburua irakurrarazi zidaten**.

4) Oin aditzaren subjektua absolutiboan doanean, absolutiboan ageri da perpaus kausatiboan ere: **Mikel jarrarazi dute**.

5) Oin aditzaren subjektua ergatiboa baldin bada eta agerian objekturik ez badu, bi egoera bereizi behar dira:

a) Objektua ezabatua edo aditzari atxikia duten aditzekin datiboa eskatzen du subjektuak: Mikeli janarazi diote; **Mikeli irri eginarazi diote**.

b) Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponenteeekin, aditzaren izaera semantikoa kontuan hartu behar da. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan ageri da (**Inori ez diogu pairarazi behar**), baina subjektua bizigabea bada, absolutiboa (**Ura irakinarazi dute**).

BA- ETA GABE-REN IDAZKERA

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: elkaturik idatzi behar da **ba-**, baina bereiz **gabe**.

HITZ ELKARTUEN OSAERA ETA IDAZKERA

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Bereiz idatziko dira:

–apozizioak (**Bidasoa ibaia**),

–**egin, eman, hartu** eta **eragin** aditzekin osatzen diren aditz elkarteak (**lo egin**),

- etxez etxe* moduko bikoiztapenak,
- egin berri* modukoak,
- mahai gainean* gisako posposizioak,
- bigarren osagaia *bila, eske* edo *falta* duten elkarteak,
- lehen osagaia *erdal, euskal, giza* eta *itsas* duten elkarteak, ihar-
tuak ez diren neurrian,
- lehen osagaiaren amaierako >a< galtzen denean (*biologi
azterketa*).

2. Marrarekin idatziko dira:

- gorri-gorria* moduko bikoiztapen indargarriak,
- apurka-apurka* bezalako bikoiztapenak,
- seme-alabak, zuri-gorri* modukoak,
- barra-barra, plisti-plasta* bezalakoak,
- Eskio-Itsaso* moduko leku izan elkartuak (bi hizkuntzatan ematen
direnean, ordea, ez: *Lizarra / Estella*).

3. Loturik idatziko dira:

- jarleku* moduko elkarteak,
- aldagaitz* bezalako izaera elkarteak,
- odolustu* moduko izen-elkarte arruntak,
- bigarren osagaia *-egin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe* edota *-gin-
tza, -za(t)ntza* duten elkarteak,
- Bigarren osagaia *-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -kide, -(k)ume, -or-
de* duten izen elkarteak,
- lehen osagaia *aurre-, azpi-* eta *gain-* duten izen elkarteak,
- lauburu* moduko elkarteak.

4. Marrarekin edo marra gabe, nahi den bezala:

- eguzki lore, eguzki-lore* moduko izen elkartu arruntak,
- kale garbitzaile, kale-garbitzaile modukoak.

(Bi hitzak letra larriz hasten direnean hobe da, hala ere, marra gabe idaztea).

5. Elkarteko lehendabiziko osagaiak >ia< amaiera duenean >a<-rekin nahiz >a< gabe idatz daitezke: *biologi azterketa, biologia azterketa*. Bestelako >a< itzatsiak ez dira galtzen elkarketa egiten denean, eta hi-

tzak bere osotasuncan eman behar dira. Salbuespen dira, dena dela, honako sei hitz hauek: *burdina, eliza, bizkuntza, kultura, literatura* eta *natura*. Hitz hauek, hala nahi izanez gero, gal dezakete >a< hori.

Idazkerari dagokionez, amaierako >a< galtzen den bakoitzean, bereiz idatziko da hitz elkartua eta >a< gordetzen denean, aukeran izango da bereiz idaztea nahiz marratxoa erabiltzea: *kultur etxea, biologi azterketa, kultura(-)etxea, biologia(-)azterketa*.

-Z GERO

1. Kasu guztietan *-(e)z gero* idatz bedi: *hori eginez gero, hori egin duzunez gero*.

2. Orduekin, eta oro har denbora posposizio gisa, *ezkero* ere idatz daiteke: *hamarrez gero / amarrak ezkero, zortzietz gero / zortziak ezkero, San Ferminetz gero / San Ferminak ezkero, atzoz gero / atzo ezkero*.

3. *Honezkero, borrezkero* eta *barrezkero* aditzondoak, era horretan idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz *borrezkero* aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.

HORI ETA, HORI EDO ETA...

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Egitura haucetan guztietan ageri diren juntagailuak osorik idatziko dira beti: *eta, edo*

2. Egitura agerikoa eta antzematen erraza denean, bereiz idatziko da juntagailua -ondoan koma izan edo ez-, bere garaian Euskaltzaindiak erabaki zuen bezala (*hori eta, hori edo, hori dela eta*).

3. Perpaus konplexua denean, ordea, beharrezkoa izan gabe ere, aukeran izango du idazleak juntagailuaren aurrean marratxoa ipintzea, testua ulertzeko lagungarri dela iruditzen bazaio (*hori-eta, biri-edo, zer dela-eta*).

ADITZOINEN FORMA

Hau da, Euskaltzaindiak erabikia, aditzoin formari dagokiona:

1. Normalean aditzoina eta partizipioa bereiztend ira: *ikas / ikasi, bil / bildu, sar / sartu*.

2. Aditza beste kategoria batetik eratortzen denean eta jatorrizko oinarritik ezertan ere bereizten ez denean, **-tu** atzizkia ere erabil daiteke aditzoinean: **ur / urtu, gizon / gizondu, gorri / gorritu, bohe / hobetu**. Kasu hauetan, hortaz, **urtu, gizondu** eta **hobetu** aditzoin gisa ere erabil daitezke.

3. Aditzoinen bukaera afrikatua denean, aditzoinak nahitaez atxiki behar du afrikatua: **buts dezaket (*bus dezaket), zorrotz dezaket (*zorroz dezaket)**.

4. Aditzoin bukaerak >i< berezkoa duenak. >i< amaiera atxiki behar da: **jaitki badi (*jaitk badi)**, jaigi badi (*jalgi badi). Ez, ordea, berezko ez duenean: **ikas ezak, utz dezake**, e.a. **Itxi** salbuespena da, honetan ere atxiki behar baita >i<, **Eutsi** eta **tritzit** aditzen kasuan aukera uzten da, bietara.

5. Ondoko kasu hauetan bakarrik onartzen da -t bukaera aditzoinetan:

- Aditz eratorria bada eta haren oinarria t- duena: **laket / laketu**.
- Literatura tradizioan jokabide bakarra izan badu: **obart, ezagut**.
- **Di** bukaerako oinarri batetik eratorria izatea eta forma laburtu gabetik semantikoki bereiz izatea: **bant, ert**.
Besteetan -t gabe, **urrun** nahiz **urrundu** (baina ez ***urrun**), **lagun** nahiz **lagundu** (baina ez ***lagunt**), **neur, ezkon**, e.a.

DIPTONGOZ BUKATUTAKO IZENEN DEKLINABIDEA

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: diptongoz bukatzen diren hitzak, **orobar, bokalez** amaitzen diren **gainerako** izen guztiak bezala deklinatuko dira. Alde batera utzirik **lau** zenbatzaileak, beste arazoi batzuegatik, sortzen dituen arazoak, salbuespen bakarra **gau** hitza da, ondoko hiru kasu hauetan: **gauez, gaueko, gauean**. Monosilabakoak izanik instrumentalean doazenak ere salbuespentzat hartzen dira (**deiez**).

PARTITIBOA BAI EZKO PERPAUSETAN NOIZ ETA NOLA

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: bai ezko perpausetan partitiboa erabil badaiteke ere, enfasia mugatuetara bakarrik mugatu behar da, tesuinguru berezietara, alegia, tradizioan beti egin izan den gisa. Halakoean, normalean, izenak sintagma adjetibal bat behar du ondoan.

ELKARTZEA MEREZI DU

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *merezi izan/ukan* aditzaren osagarria aditz izen bat denean (*joatea, ikustea, egitea*) erabili bedi absolutiboa, eta ez eragatiboa, horrela erabiltzen baitu herriak bere eguneroko hizkeran eta horrela erabili izan baita euskararen tradizioan ere:

*Joatea merezi du. / *Joateak merezi du.*
*Ikustea merezi du. / *Ikusteak merezi du.*

ONGI ETORRI!

Hau da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: agurra egitean-eta **Ongi etorri!** esan bedi, ez *ongi etorria!* edo *ongi etorriak!*, hauxe baita euskararen tradizioa.

HIRU KILOKO HAURRA, LAU HANKAKO MAHAIA

Hau da, Euskaltzaindiaren erabakia: *buru argiko neska, adineko pertsona, biru bankako mahaia, bost orriko txostena, lau laguneko taldea, ondo egin beharreko lana, neurri txikiko oinetakoak, fede apurreko jendea*, e.a. bezalako sintagmetan, alegia nolako galderari erantzuten diotenean, **-ko** hobesten da.

Horregatik, tradizioak erakusten duen bezala, eta idazle gehienek segitu duten bidetik, **-ko** atzizki forma da hobesten dena, eta ez **-tako**.

Oinarrian zenbatzaileraren bat ageri denean eta adina, prezioa, neurria, pisua,... adierazten duten izenlagunak osatzen direnean ere **-ko** da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz, *bi urteko umea, bost liberako egunkaria, biru kilometroko bidea, hamar metroko garaiera, biru asteke egonaldia*, e.a. Baina **-ta** atzizkia erabili beharrekoa izan daiteke zenbaitetan. Adibidez, nongo galderari erantzuten zaionean: *hiru etxeetako haurrak etorri zaizkit; biru etxeetako haurrak etorri zaizkit; *hiru etxeke haurrak etorri zaizkit*, e.a. Zenbaitetan **-ko/-tako** bikotez baliatzea ezinbestekoa izan dezakegu bereizketak egiteko: *zazpi urteko ardoa* (botilan dagoen ardoak zazpi urte ditu), *zazpi urteetako ardoa* (ardoak zazpi urtetan, ez zortzitan bildua izan da) eta *zazpi urteetako ardoa* (aldez aurretik ezagutzen ditugun zazpi urte diferentetan zehar bilduriko ardoa. Azkeneko zazpi urteetan, esaterako).

Honek erakusten digu batzuetan **-tako** beharrezko dela, baina ez urte hauetan erakutsi izan den bezain sarri.

ORDUAK NOLA ESAN

Hau da Euskaltzaindiaren eerabakia orduen idazkerari buruzkoa:

1. Orduak honela ematen dira: *ordu bata, ordu biak, hjururak, laurak, bostak, seiak, zapiak*, e.a. Ordu hitzaren ordeaz oren ere erabil daiteke: *oren bata, bi orenak / biak, hirurak*, e.a. Eta honela deklinatu: *ordu batean, bietan / ordu bietan / bi orentan, hiruretan*, e.a.
2. Erdia honela adierazten da: *ordu bat eta erdiak, ordu bi eta erdiak, hiru eta erdiak, bost eta erdiak, ordu bat eta erdietan, ordu bi eta erdietan, hiru eta erdietan, bost eta erdietan*, e.a. Gauza bera *oren* hitzarekin.
3. Laurdena honela adierazten da: *ordu bat eta laurdenak, oren / ordu bata eta laurden, ordu bi eta laurdenak, oren / ordu biak eta laurden, hirurak eta laurden, biru eta laurdenak, birurak eta laurdenetan, biru eta laurdenetan, bostak laurden gutxi(ago)*, e.a.
4. Minutuak: *hamarrak hamar gutxi, hamarrak hamar gutxiago, hamarrak hamar gutxitan, hamarrak hamar gutxiagotan, seiak eta bostean, laurak eta hogeian, hirurak eta bemezortzian*, e.a.
5. Zifretan ematen direnean, bi punturekin bereizten dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar dira beti: **00:12, 12:10, 09:25**, e.a. Deklinatzen direnean, orduei plurala erantsi, eta minutuei singular marka, dagozkien lotura bokalekin: **15:00etan, 15:03an, 15:04an, 15:30ean**, e.a. irakurtzeko orduan hobe da, hala ere, honela irakurtzea: *biruretan, hirurak eta biruan*, e.a. Erabilera formaletan ontzat ematen dira, dena den, *hamabostak eta bostean, hamabostak eta hamabostean*, e.a.
6. Egitarau, kartel eta horrelakoetan ez da eragozpenik erdiko bidea hartzeko: *arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte, arratsaldeko 3etatik gaueko 12ak arte*, e.a.

DATA NOLA ADIERAZI

Data adierazteko orduan, forma hauek erabil bitez:

* *Durango(n), 1995eko martxoaren 7a(n)*, aukeran utziz inesiboren marka.

* 1995/03/07; 199-03-27; 1995/III/07; 1995/III-27; 1993-11-23ko *bilera agiriak* dienez...

* *Urtarriak 20* bezalakok ere erabil daitezke, baina aposizioan: *gaur, urtarrilak 20* bezalakoetan (beraz, **otsailak 20 egün zuten bilera* ez da zuzena).

ZENBAIT ADITZEN ERREGIMENA

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia ondoko aditz hauen erregimenaz:

* **Gonbidatu** aditzak NOR-NORK eskatzen du: "*Mikel gonbidatu dute*"

* **Iguriki** aditzak NOR-NORK eskatzen du: "*Ez dute bertzerik igurikitzen*"

* **Itxoin** eta **itxaron** aditzek NORK-NORI eskatzen dute objektua dutenean: "*Mireni itxoin zioten eguerdiraino*". Eta objekturik gabe daudenean NOR-NORK behar dute: "*Egongelan itxoin dute golz osoan*".

* **Deitu** eta **lagundu** bietara erabil daitezke: "*Mikeli deitu diogu*", "*Mikeli deitu dugu*"; "*Mikeli lagundu diote*", "*Mikel lagundu dute*".

TOPIKO(A) BIHURTU

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: perpaus baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestearren predikatu osagarria denean, **bihurtu** aditzak mugagabea eskatzen du predikatu osagarri hori: *ura ardo bihurtu zuten*. Hala ere, sintagma izan soil batek osatu beharrean beste ingurukariz jantzen denean, izenondoak, izenlagunak, adjektibo konparatiboak, perpaus erlatiboak, e.a. erabiliz, orduan artikulua eskatzen du askaotan. Kasua, berriz, beti absolutiboa erabiliko da: *emakumerik ederrena bihurtu zen*.

EGITEKO ASMOZ

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: erabil bitez **egiteko asmoz**, **joateko asmoz**, **eztabaidatzeko asmoz**, e.a., tradizioa duten egiturez baliatuz, eta ez **joan asmoz*, **eztabaidatu asmoz*.

LEHENAGO ETORRIKO ZEN; LEHENAGO ASMATUKO ZUEN

Hau da Euskaltzaindiaren erabakia: **Hau jakin (izan) banu, etorriko nintzatekeen; berehala esango niokkeen**, etab. nahiz *hau jakin (izan) banu, etorriko nintzen*; berehala esango nion, etab. *biak, ontzat ematen dira*.

-ARI (-LARI) ATZIZKIAZ

Hauxe erabakitzen du Euskaltzaindiak:

1. Erabil bedi **-ari** forma, **-a** bokalez amaitzen diren izen oinarriei eransteko, batez ere bi silabatik gorakoak direnean. Beraz, **gramatikari** edo **politikari** erabil bitez batasunerako (eta ez **gramatikalari** edo **politikolari**).
-ia amaierako izenekin, **-ialari** hobesten da: **historialari, zientzialari**.
2. Era berean, erants bekio **-ari** atzizkia izenari, eta **-le** edo **-tzaille** atzizkiak, berriz, aditzei. Hortaz, **bezle, bezitzaille** edo **ikeretzaille** dira batasunerako formak, **hezi** eta **iker(tu)** aditzak baitira.
Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, zilagi izan daiteke adiera batean **-le** edo **-tzaille** eranstea, eta **-ari** beste adieran: **idazle / idazkari, zuzentzaille / zuzendari**.

-ARI / -ARIO

Honako arau hau ematen du Euskaltzaindiak:

Erdal **-ario/-aire** atzizki ez osatutako izen-izenondoak **-ario** forman, eta ez **-ari** forman, mailega bitez:

-Izenen artean **notario, komisario, unibertsitario, funtzionario, kortsario, mertzenario**, etab. (salbuespenik balego, hiztegi batuan zehaztuko dira salbuespen hauek bere garaian);

-izenondoetan (**talde**) **parlamentario, (sistema) planetario, (jokabide) sektario**, etab. Baina ahal dela, maileguz hartutako erdal izenondoan ordez, hobe euskal egituraren arabera ordainak erabiltzea: **talde parlamentario** esan beharrean, **parlamentu(ko) talde** edo **sistema planetario** esan beharrean, **planeta-sistema** edo **planeta sistema** esatea egokiagoa da. Gauza bera **aldizkari unibertsitario**-ren kasuan ere, egokiagoa baita **unibertsitate(ko) aldizkari** erabiltzea.

Patxi Uibarren